

A. Ugaldé 'ni' Iñigo Feas

8 - LOYOLAKO ARGIZPIAK - 8

IHS

Loyolatar' Iñigo Deunaren

Bizitza

Irudiz apaindua

Apalategi'tar' Franzisko

Jesusen Lagundiko apaizak
argitaratua.



JESUS'EN BIOTZAREN DEYA'RENEAN

Apartado 73 - BILBAO

1928

R-3041

M.2919

R.3485

ATV
2.839

IHS


Loyolatar

Iñigo Deunaren



Bizitza.







ITZAURĒA

1921-gaíenean Iñigo deunaren bizitza dotore-dotore bat agertu genun, uda-beíri aítetan Iñigo deuna Jainkoruntz biurtu zaneko lareun urteak osotu ziran ta. Liburutxo ura, izkera bitara dago, erderaz eta euskeraz. Nai dunak ikusi lezake.

Orain, euzkeraz bakaírik egin nai degu, euskaldunentzat bakaírik; gure mendietako semeak jakin ditzaten Iñigo deunaren gertaerak. Lotzagaía da, gure artekoak, gauza abek ez jakitea. Umetandik jakin beaí genituke guztiok ze-zearo Loyolako seme bikañaren bizitza eta goraberak. Oraindaño oírelakoren beírik jakin ez badezu, ezaitezela auíerakoan jakingabe izan. Emen ikusiko dituzu, irudien aldamenean Loyolataí deunak egindakook.

Txikia da liburua, ta txikientzat, batikbat egin nai genuke, gure eíietan, Iñigo deunaren bizitza ezagutzen ez duan umerik izan ez dedin. Gero, beaí bada, bizitza zabalagoa agertuko degu noski.



A. Stanton, Jr.


Iñigo deunaren arpegi-antza

Iñigo deuna il beñian, bere aurpegi antzeko irudi asko egin ziran, bañan danik egokiena ta egiazkoena, Alfonso Coelok, bigarren Pelipe erregearen irudigileak egindakoa da.

Aita Ribadeneirak, Iñigo-rekin gazte-gaztetandik bizi izanak, ta bere Aita nolakoa zan inork ez bezela zekienak, ara zer dion Coeloren irudi onetzaz: «Coelok, Madrilen egin zun 1585-garrenean, deuna ildakoan egindako beste irudi bat aurrean zuala, ta ni antxe nintzala, irudia nola atondu beař zun antz-emateko esanaz».

Izena nola zun? ¿IÑIGO edo IGNAZIO? Begira: berogei ta sei urteak arte Iñigo esan zioten. Bañan Italira jun zanean, ez baitzan alderdi aietan Iñigo inoiri esateko oiturarik, IGNAZIO baizik, eta izen au artu zun eta geroztik idazprietan ere IGNAZIO ipintzen zun.





L. MOICO.


Etxea

Loyola etxe agurgaria, Azpeiti ta Azkoi-
ti bitartean dago, Urola ibai ondoko lurretan,
Izaraitz mendi aundia ipar aldera dula. Izar-
aitzpe abei IRAURGI esan oi zieten. IRAUR-
GI erdian dago bada Loyola. Emen jayo
zan 1491 garnean. Senidetan amairugarrena
zan, zortzi anai ta bost araba zirala. Dane-
tan gazteena.

Loyolatik Azpeitira zoazela, ba da ibai
ondoan EGUIBAR baseia, emen azi omen
zan Inigo umetan.

Mutil gazte zala gudaritzara jo ta guda-
ri izan zan ogei-ta-amañ urteak arte. Guda
nagusi (*kapitan* noski) zala arkitu zan Iru-
ñako zalapartan. An zer gertatu ziran gero
esango dizkizut.





Ate gañeko pertza ta otsoak

¿Zembat aldiz ikusi dituzute Loyolako ate zaí gañean dauden pertza ta otsoak? ¿Zer ote dira? ¿Ez al dizute oraindaño iñork esan? Orain entzungo dezute bada. Antziñako gipuzkoar artean AIDE NAGUSIAK esan oi zieten etxe bikain batzuk baziran. Abek omen ziran gipuzkoar jatorienak. Eregandik eskubide aundiak zituzten. Eregak, guda egin bear zunean, Gipuzkoak eman bear zizkion guda mutilak, eta abez gañera AIDE NAGUSIAK beren diruz bidali bear zituten ere bakoitzak ainbeste edo ainbeste mutil.

Orain adituko dezu pertzak eta otsoak zertarako ipiñi zituten. Adierazten dute, Loyolako jaunak bere diruz jaten eman bear ziola guda-mutil salari, au da jana egiteko pertza; eta otsoak dira, pertzatik jaten zuten guda mutilak berak.


Zergatik du Loyolak ańizkoa
beko aldea eta ladrilozkoa goya.

Len aitaturako AIDE NAGUSIAK ańotxo zebiltzan. Aberatsak bait ziran, beren mendean gizon eta etxe asko zituten eta, Ereegandik eskubide aundiak ere bai ta, ofela ańotu egin ziran. Ayentzat, besterentzat bezelako legerik ezan. Bitara zatiturik zebiltzan. Batzuk OÑAZTARAK ta besteak GANBOATARAK. Alkafekin izugarizko burukak zekazten. Eriotzak, etxe eřetzak eta abar. Gaiztakeriak egin bai ta beren etxe sendotan sartu eta ińork ezien ezer ere egiten.

Ařgatik, Kastilako Ereege Endrike laugarrena asaratu zan eta Gipuzkoako AIDE NAGUSI'en etxeak luřeratzeko agindu zun. Orduan galdu zuten Loyolak eta baita Azkoitiko Baldak ere goiko ańizko zatia.

Gero, Ereegek, goikoa ladriluz egiteko baimena eman zun. Abek, Ińigoren aitona etxeko Jaun zala gertatu ziran.





Iruñan zaurituta bere etxera


dakarte

Urte ayetan, Napañak buñuka gogoñean zebiltzan. Batetik AGRAMONT-añak, Albrit Napañoako Eñegearen aldekoak, Prantziko Eñege Prantzizko lagun zutela; bestetik BEAMONT-añak, Aragoiko Eñegearekin zebiltzanak. Abekin zan Iñigo Kapitana. Oñilaren 20-an sartu ziran Iruñan Albriten aldekoak eta uñengo egunean (Pasko bigañenean) gure Iñigori, gaztelu gañean gudaketan ari zala, kañoi bala batek ezkuiko ankezuña apurtu ta ari koskoñ batek ezkeñekoa puskatu zion.

Lenengo sendaketak Iruñan bertan, egin zizkioten noski, bañan etxera etoñi beañ zula ta gizagaxoa gudamutilak artu eta, bide luzea bada ere, Loyolaraño ekañi zuten.

Emen, goiko bizitzan, Kapila nagusia dagon lekuan, egon zan sendatu artean.





Jainkogana biurtu zala.

Bide berian.

Ez zan berealakoan sendatu. Ezuñak gaizki zeudela ta beriz askatu bea' zirala ta oñela azkenekoetan zegon. Pedro deunaren egunean obetoxeago arkitu zan. Gerostik obeta obe. Pizkortu zanean, oyea ez azper-tzearen liburu batzuk ezkatu zitun. Txorakeri liburuak nai zitun, bañan arkitzen ezituztela ta, Kristo eta Santuen bizitza ekañi ta abek irakuñiaz, Jainkoagana biurtu zan.

Asmo beriak artu ezkeru bañungo buñukak ere izan zitun. Gau batean, oetik jaiki ta, Maria txit garbiaren irudi añaan apal-apal auzpezturik, Jainkoaren mendean beti zintzo izango zala benetako ezkeintza egin zion.

Diotenez, gau artan egin zun etxeak dañdañ ta ordukoa dala diote etxeak goitik bera dun ziritua.





L. Molitò.


Sendabeñian egindako ibilerak

Montseñateko bidean.

Sendatu ta, bañan oraindik eñenka zebilela, Olaz'ko Mariaren eleizatxora joaten ari zan. Pixkoñtutakoan, biziera beñia egiteko asmoz, etxea ta txorakeri guztiak uztea erabaki zun. Martin anai zañenak, Iñigoren asmo beñiak igarñi ta eragotzi nai izan zizkion, bañan Iñigok «ezula gaxtakeri egiteko asmorik» esan bai ta alde egin zion.

Etxetik irten ta bi moñoi azkoitiañekin Arantzaturako bidea artu zun. Arantzatsutik Naxera'ko dukea zegoen, Eñioxa aldeko Nabafetera joan, eta andik beñiz bi moñoyak utzi ta bakar-bakañik Montseñatera.

Mando gañean zijoala moro bat alkertu zizaion. Beñiketan asi ta moroak ez zun Ama Birjiñaren garbitasunaz oso zuzen itz egiten. Iñigok eta moroak gai oñetzaz eztabaida beroa izan zuten. Oñela, moroa auñeratu egin zitzaion. Iñigo atzeraxeago zijoala, moro lotsagabe ura ilko ote zun etoñi zizayon burura. Azkenean ara zer erabaki zun: bideak bitara egiten zun, bada bide bietarakoan mandoai laga aoko ugalak, dijoala naidun aldera; manduak moroaren aldera artzen badik moroa il egingo diat, ta beste aldera jotzen badik pakean utziko diat. Jainkoak nai izan zun, mandoak bide zabala utzi ta moro okeña bizirik geratu zan.




Montseñat'en

Montseñat, Kataluña erdiko, gure Ernio-
ren antzeko, arkaitz aundia da. Mendi ortan
dago Ama Birjiñaren antziñako irudi bat.
Kataluña tañak beren eñegiñatzat daukatena
eliz eder bat, eta eliz ondoan azpalditik frañe
comentua egiña diote.

Iñigok, ara eldu orduko, lenengotik aitoñ-
entzule bikain bat bilatu ta bere bizi guztiko
aitorketa idatziz egin zun. Iru egun oso-oso-
rik iraun zun arazo onetan. Gero mandua co-
mentuari utzi, ta ezpata ta sastakaya Andra
Mariaren aldare aũean zintzilik ipiñi erazi
zizkion.

Jantzi aldaketa

Epalaren 24-gañenean. Ilundu ta, eskale
bat arkitu zun eta soñeko jantzi apain guz-
tiak eman zizkion, baita alkandora ere, ta
berak, artarako erosita zeukan soñeko zatañ
bat, lepotik oñetarañokoa, geñan lokañiz lo-
tuta jantzi zun; eskuiko oñean abarketa zau-
riagatik, ta ezkeñekoa beñiz oñutsik.



L. Molle


Guda-gizon beña

Jantzi beña soñean zeukala, 1522-gaíneko Epailaren ogei-ta-lautik bosterako gau guzian, Montseñateko eleizan otoiketari jardun zun.

Irakurri omen zun, zaldunkeri liburuetan, zaldun gazteak, ezpata artzen zutenean ezpata ta guda-iskiluarak zaituaz gau osoa igarotzen zutela. Alaxen Inñigok ere, Kristoren guda-gizon beñi egin zanean, gau guztian egon zan Andra Mariaren aldare aurrean; ta batean zutik, ta bestean belauriko, gaitzegiñen barkapena eskatuaz eta bizitza aldatzeko asmo onak egiñaz, egun argiarte iraun zun.



L. MOICO



Manresa'n

Manresa, Kataluñan, Montseñat aurreko efi aundia da.

Epailako Ama Birjiñaren egunean Iñigo efenka-efenka Montseñateko aldapa bera zetoñen. Lau emakume ta bi muti koskoñ arkitu zitun. Inguru abetan egaxo etxerik bai alda? galdetu zion. Bai, erantzun zioten; emendik iru ordu bide. Atoz gurekin. Asto gañean jañi zaite, esan zion Iñes Paskual'ek. Ezkarik asko Iñigok, eta ayekin sartu zan Manresan aratsalde artan bertan. Bere bizilekua gaxotegia izan zan, bañan otoitz egiteko, Kardoner ibai ondoko aitzulora joan oi zan. Etsaiaren zirikaldi aundiak izan zitun, bañan beti gogoñ egin zion, ta Jaunak asko lagundu zion ere.

Alako batean, Domingo deunaren eleiz maletan zegola, gogoak gorunz jaso zun ta IRUKOITZ deunaren irudia aurkeztu zizayon. Bañendik aditzen zun begiak ikusten zutena. Egun artan elizbira (prozezioa) zan ta Iñigo, kalez-kale zijoala, malko ta sotin gozoak ezin galerazirik zijoan.

Pozaldi onek eguerdiraño iraun zion.



Kordegabetza

Manresan, Luxi deunaren gaxotegian bizi zala, larunbat ařatsalde batean azken-otoiketak egiterakoan, oso kordegabeturik gelditu zan. Luzaro egon zan gero. Izugaři luzaro. Gaxotegikoak bi, ta iru, ta lau egun esnatu gabe zijoazela ikusirik, iltzat artu zuten. Guztiak ařiturik, luřean zetzan eskale ari begira. Lurperatzeko asmoetan ziran. Bařan norbaitek; biotzak indař gabe bazan ere, oraindik taupa-taupa egiten ziola igarři ziolako utzi zuten. Noizbait ere, uřengo larumbatean, Salve abesteko garayan, esnatu zan, aspera maitatsu bat emanaz, bi aldiz ziola: ¡ai Jesus! ¡ai Jesus.!





L. Mello

Manresako aitzuloan.

Gogo jardunak (Ejertzizioak)

Iñigoren bizilekua, Luxi deunaren gaxotegia izan oi zan eta baita domekataren conventua ere. Noizbait, gaxo aldietan, Monseñatañ ongile batzuk zaitu zuten eta orduan aben etxeetan egon zan. Bañan otoi egiteko, iru metro luze, bat eta erdi zabal, eta erdiko aldean bi metro goibe zan aitzulo batera joaten zan.

GOGO JARDUNAK, danok dakizute zer diran. Edozein zeru bidean jartzeko jardun egokiak. Manresako aitzuloan idatzi zun liburu afigañi au. Ondo afigañia. Irakurtzen eta idazten baizik ezekien gizonak egiña da ta.





Manrésako gaxotegian

An bizi zan geyenetan. Gaxoak zaitu, beren miñak alegiñaz arindu, Kristau bidea erakutsi eta abar.

Gaxotegi oretan bizi zala, afigari asko izan zitun. Bein batean, eriz kampa zijoala, ibai ondoan exeri zan. Manrésako ibayari Kardoner esan oi diote. Kardoner onen eskuiko ertzean udari begira zegola, bat-batean zeruak iriki eta ango ikuskizun zoragarriak agertu zitzazkion. Zer ikusi zun ez dakigu, baña gero, zarzaroan, 62 urtez gorakoa zala, esan oi zun: «liburuetan ikasi, eta bere indarez eta baita Jainkoak agertuta zekitzien guztiak batuta ere, etzirala ibai onen ondoan oraingoan bakarrik Jainkoak erakusi ziozkan añakoak.






Jerusalen'erako bidez

Barzelonan

Manresan, urte bete egon ta Jerusalem-
era joateko gogoa egin zizayon eta artarako,
lenbizi Barzelonara itxax-ontzi bila abiatu
zan.

Barzelonako, eliz batean aldare aurreko
maletan, ume artean exerita zegola, Isabel
Roseil zeritzan andra begira zegokion. Onek
aitortu zunez, Inigoren aurrepegia, argi izpiak
zeriozkala ikusten omen zun eta bere baruan
'deitu zayozu; deitu zayozu' deadaña entzu-
ten zula zion.

Isabelek, alegia ez ikusi eta ez entzun
balu bezela egin zun, bañan biotza samurtu-
rik zeraman. Etxerakoan, bere senaari ikusi
ta entzundakoak agertu zizkion. Senaia gizon
bikaña zan ta itxua, ontzat artu zitun emaz-
tearen esanak eta kalez-kale Inigoren bila
ibili eta arkituta beren etxera eramán zuten.





L. Molitò

Benezira

1523 gañeneko asieran Barzelonatik irten ta Itali izbaztefeko Gaetara eldu zan. Emen esan zioten, Jerusalem alderako fontziak ez Gaetan, Benezian baizik zirala. Bi efi oyek, 600 kilometroko bitartea dute. Ezan izutu; oñez ta ezkean, negua izanik, ia Itali osoa zear ibili beañean izan zan. Bide erdi dago Eroma. Abaí igande (eíamu egun) an Eromara eldu zan. Auñera Beneziraño. Egunez eskean etxez-etxe ta gabea, San Markos dioten enparantza aundira joaten zan etzatera.

Gau batean, Benezitaí jaun bat bere oyea lo zegon, lñigo beñiz luí gogof otzean ta izarpean. Benezitaí onek, ametsetan deadaíak entzun zitun; "zu, oi biguñean eta lñigo nere zintzoa emparantzako ari gañean?" Abek entzun ta bildurtu ta ikaraturik jaikitzen da; etxetik irten, kalerik-kale argi zuziekin ibili, zeñen bila zebilen ezekiela ta askenean arkitzen du lñigo emparantzán lotan! Au izango alda nere ametsetako gizona! Esna erazi ta bere etxera eraman zun.





Jerusalenen'en

1523gaíeneko Uztailaren amalaurean ontziratu ta Irailaren laurean Jerusalem'era eldu. Ilabete t' erdi luxetxo itxasoan. Toki deun aietan urte bete iraun. Badakizu noski, ango eleiz-zaitzale Pranziskoar' praleak izan dirala beti.

Alderdi aietan oso posez ibili zan. Bañan, an ere Jainkoari zer eskeñia izan zun. Alako batean, Olibete mendian ikusi zula bañan beriz zearo-zearo ikusteko gogoa egin zizaion, lagunak utsi ta ixil-ixilik badijoa aldapa gora. Bide-erakuslerik ezeraman eta gañera berarekin turkar'-zaitzalerik gabe zi-joan, Turkataren laguntza oso beaíezkoa zan eriz kampaia ibiltzeko. Yo zan bada baka-rik eta bañutian sartzearen, ango begiraleari, berekin zeraman labantxo bat eman zion. Pranziskar' abak aguro igañi zion besteekin batean ezetoñela ta bizia galtzeko zorian zala ezaguturik, etxeko moñoi bat lñigoren bila bidali zun. Moñoi onek, lñigo bilatu, ta eskuan zeraman zigor'akaz joka ta bulkaka eram- man zun. Ezion lñigok gogor' egin.





L. Moltó

Jerusalendik itzulpena


Luí deunaren zaitzale Pranzirkaí abak, Iñigo onuntz biurtzeko agindu zu. Itxaz ondoan, iru ontzi Italiarako gertuak arkitu zitun. Turkaíena bat, oso ona. Beste sal-erosi Benezitaí batena; ez zun Iñigo sari-onez eraman nai izan. Irugaíena ontzi kaxkaía eta pipitua; onen nagusiak eramango zula Iñigo mesedez.

Egun batean eta aide onez, itxaz-baíendu ziran irurak, bañan ilunabaíean ekaitz gogoía jaiki zan. Ontzian zijoaztenak, bildur ikara artan, obia itxaz uretan zeuzkaten. Iñigo bakaíik zegon paketsu ekaitzaren gogoíenean.

Turkaíen ontzia, bertako lagun guztiekin irentzi zun itxasoak. Benezitaía, Txipre ugarte ondoko arkaitzetan jota galdu zan, baíengoak bizirik erten baziran ere. Iñigo zeraman ontzitzoa bakaíik zorionez eldu zan, Pulara lenbizi ta azkenean Benezira 1524 gaíeneko Ilbeltzan.



L. Molitó



Barzelonako ikastetxean

1524garfeneko garizuman eldu zan beñiz Barzelonara.

¿Gaur gero, zertan ariko nak? Esan zion bere buruari. Loyolatik irten zala bi urte ziran eta bere animaren alde alegiñak egin zitun. Osterantzean, besteen animak zeruronz zuzentzeko asmo artu zun. Ortarako eleiz-jakintza eta eleiz baimenak beañ zitun, ta bat eta bestea nozbait irixteko ikasle egin zan. Latin iskutnza lenen-lenengo ikasi beañ. Bazan Barzelonan Ardebalo zeritzan latin irakaslea. Onek sari-onez irakatziko ziola ta Isabel Roseñ eta Manñesako Iñez Paskual'ek jan-ta-jantzi emango ziotela. Oñela, ogeita amairu urteko gizona, umeen artean ikazketan asi zan.

L. Moltó



Alkalako eta Salamankako ikastetxean

Barzelonan latinez ikasten bi urte egonda, Alkala'ko ikastetxe nagusira aldatu zan. Erian sartzerakoan, lenengo, Olabe'tar Martin euskalduna, Gazteizko ikasle gaztea, arkitu zun. Onek eman zion lenengo sorozkia (limosna).

Bañan Alkalak ezun ondo artu. Kristau ikasbidea azaltzen eziotela uzten eta 1523 gañenaren ikastaro azkenean, Salamanka'ra jun zan. Emen beriz etziotela ikasgayak agertzen utziko ta ba-ez-bada giltzapean sartu dute.

Mendoza'tar Pranzisko jaunak ikustatu ta galdetu zion; Iñigo of itxian ta katez lotuta egoteak ¿ez al dizu naigaberik ematen? Eran-tzun omen zion: begira; Salamankan kate asko badira ere, geyago eraman nai nituke Jesu Kristogatik.

Giltza petik irten da. Salamankan bañon Parisen bere ikas lanak obeto egingo zitula ta uri nagusi ontara jo zun.



Uretan sartuta

Emen ere, lagun urkoai onik egin gabe ezin egon ta begira bein batean zer egin zun.

Iñigok bazekin gizon kaxkañ batek, Paristik irten oi zala pekatu egiteko asmo txarrez. Askotan esaten zion Iñigok biziera gaizto ura uzteko. Bañan alpeñik. Egun batean, gizon gaxo arek, ibai ondolik igaro beañ zula jakiñik, gure Iñigo uretan leporaño sartu zan. Negua zan ta otz ikaragaña. Parisen otz gogorak izan oi dira bada. Gizona, ibaira uretatu zanean, Iñigok putxutik deadañ egin zion: "¿Nora oa? ¿Ez alaiz Jainkoaren bildur? ¿Ez alde ikusten infernua eori irentzitzeko irikita dagola? Oa, oa, ni emen egongo nak ire alde Jainkoari otoiz egiñaz".

Gizona, begiz ikuzten zuanaz izaturik, bide txarñ utzi ta Iñigoren lagun egin zan.



L. Molto -

Astinduko zutela

Barbara deunaren Ikastetxera jun oi zan Iñigo eta ikasleen artean zebilela esaten zien. Jolasketa eta txorakeriak laga ta jai igandetan aitortu ta Jauna artu obe zutela. Paris'en igandetan ere ikasleak eskolara jun oi ziran ta batzuk eleizara joateagatik berandutxo eskoletaratzen ziran. Iñigoren irakasle jaunak naigabeturik zeuden eta besteren bizitzak atontzen ez aritzeko, zigorkadaz astinduko zutela bestela, esan zioten.

Jakin zun Iñigok bere kaltetan zer erabaki zuten, eta nai izan balu alde egingo zun bañan biotzak zotin egiten bazion ere, ikastetxean sartu zan.

Zigorkadak noiz emango zizkioten ikasleak zai zeudela, an dator ikastetxeko nagusi Gobeia jauna. Iñigori gorputzak dar-dañ egiten zion. Bañar iñork uste etzuna gertatu zan. Gobeak esan zien an zeudenai: zuen lagun onen biziera eta eginkizunak jakin ditut eta zearo-zearo begiratu ta ontzat artzen ditut eta belauniko Iñigoren aurrean jañi eta barkatzeko eskatu zion.



Mon-mart'en

1534garénean ezebilén Iñigo bakañik Maníesan bezela. Sei urte bañon geyago zeramazkin Paris'en ikasle, ta bere asmoak, bere kemenak, eta gogoak ikasle ta irakasle gazteai jakin-erazi zien, ta batzuk bereganatu zitun. Lenengo lagunak, Barbara deunaren ikastetxean eta Iñigoren gela berberean bizitakoak ziran.

Paber'taí Pedro (Saboyataía) eta Xabier'tar Pranzisko napaí euskalduna. Biak aldaretan ikusten ditugu. Beste lau ere bereganatu zitun ta Bazkun egin zuten.

Lagundi beñi au iraunkoí izan zedin, beren buruak Jainkoari betiko eskeintzea erabaki zuten. Oírelaxe sortu zan Jesus'en Lagundia.

Udara-opoñketan, Amabirjiña zerura jaso egunean, eñiz kaporako Mont-Mart dioten eleizatxoan egin zituten beren ziñezkeintzak (botoak).



Azpeitian

1535 gañenean etoñi zan Iñigo Azpeitira.

Amairu urte ziran etxetik irten zala. Gizon sendoa izan añen, biziera gogorègia artu ta osasuna galdu zun. Osagileak bere jayotokira etoñi beaño zula esan zioten eta oregatik etoñi zan bere eñira. Bere lagunak zalditxo bat erosi zioten. Goñixka omen zan. Pranzitik Azpeitirako bidea Usurbilko San Estebandik, Zarate, Ituñioz, Etumeta, Emparanera zetoñen. Bañan Etumetatik Erañi-zagara ta Lasao aldera jetxi eta Madalenatik sartu zan.

Bere anai zañenak alegiñak egin zitun Iñigo Loyolara eramateko, bañan alpeñik. Eñi sañerako Madalena gaxotegian bizi eta aurfeko eleizatxoan erakusten zien umeai kristau ikasbidea.

Iru ilabete; Joñarila, Oñila ta Garagañilean egon zan.



Azpeititik Eíomara

Azpeititik irten ta Napaíoara ta Kastilara jo zun. Bere lagunen etxetik-etxe ibili zan gurasoai beren semeen asmoak adierazten ta abar. Urte t'erdi oírelakoetan ibili ta Italira beriz jun ta antxe apaiz egin zan Benezin 1537 garanean, berogei ta bost urteakoa zala. Apaiz egin aien, etzun uste Meza emateko bea bezelakoa zala eta oraindik beste urte t'erdi egon zan Mezarik eman gabe, artarako ondoondo gertu nayan. Noizbait ere 1538 garane-ko Gabon egunean eman zun Eíoman zala. Iñigo ta bere lagunak Eíomara joan ziran Aita Santuaren mendean beren buruak jaí eta nolako biziera artuko zuten erabakitze-ko asmoz.

Bidez zijoaztela Eíomara eldu baño lentreago, eleizatxo batean otoiketara sartu dira. Bat-batean gogozko begiak argiturik ikustendu Iñigok Jesu Kristo gurutzea zeramala ta Goiko Aitak esaten ziola: "Seme; Iñigo ta bere lagunak arzazkidazu zure zaipean. Baita Jesu Kristok Iñigori ziola ere: Eíoman zuen alde izango nazute. Abek entzun da Eíoman pozez sartu ziran.



L. Molto

Jesus'en Lagundia

1537garfeneko Azaroan, Erómara junez-
kero, ezan geyago andik irten. Emezortzi
urte eta zortzi ilabeteko bizitza izan zun.
Orduan bere lagunak oso batu zitun Lagun-
dia egiñaz eta Aita Santu Paulo irugarrenak
ontzat artu zien. Azkeneko urte abetako egin-
kizunak abek izan ziran; Lagundia osotu; se-
me beñari Lagundiko biziera erakutsi ta gero
lagunak lurbira guztira zabaldu Jesu Kristo ta
bere elizaren alde lan egitera.





L. Molitó

Borja deuna
Iñigoren mendera

Ara Eromara jun zizaion Borja'tar Pranzisko deuna.


Borja'tar Pranzisko Deun, Gandia'ko Duke, Kataluñia'ko elege-ordeko, bostgañen Karlos España'ko elege ta Alemani'ko Emperadorearen adiskide aundienetakoak, alargun zala eta seme zañenak bizibidietan zitula, Jesus'en Lagundi sortu beñian sartzeko asmo izan zun. Jaun ain aberats, ain altzu ta goi areek ondasun guztiak ta utzi zitunean, Europa guztia añiturik geratu zan.

Mundua utzi beñian izan zan Oñatin. Andakite Madalenen zer biziera egin zun. Apaiz egin da laster Loyalara etoñi eta emen eman zun lenengo Mesa. Oraindik ementxe ditugu bere kasula edeñak.

1550gañeneko azkenetan Eromara jun zizayon Iñigori.



L. MOICO



Xabiertar Pranzisko Deuna

Indietara bialtzen du

Iñigo ta bere lagunak, amañ apaiz Eromara etoñi beñi ayek, giza-biotzak Jainko'raganatzeko alegiñaz egiten zutela, eñomatañak ikuzten zuten.

Iñigoren izena, urutietara ere zabaldu zan ta Portugaleko eñegeak bere Indi mixioetarako sei lagun beintzat eskatu zizkion.

Iñigok, oñelakoak entzun ta, esan zun: Amañ lagun gera, eta Indietarako sei kentzen badizkiazute, beste mundu guztirako eñzenbat geratuko gera?

Azkenean, irugañen Paulo Aita Santuak, bi joateko erabaki eta Indietaronz abiatu ziran Xabiertañ Pranzisko eta Simon Rodrigez. Au Portugalen geratu ta Xabiertaña bakañik jun. An egin zitun añigañiak beste liburutxo batean ikusiko dituzute.



Iñigoren eriotz edeña

1556gañeneko udaran, laugañen Paulo Aita Santuak eta bigañen Pelipe Españiko eñegeak guda zekarten. Eñomako kaleetan zalaparta izugaña zan. Guda gizonak gora ta bera, suiskiloak, adañ otsak, ta alakoak.

Iñigo deuna zartu zan. Kaleko iskambil ayek ez ikusteagatik eñi aldeko baseñi batera jun zan. An gaizki zegola ta, bere azken eguna bazetorkiola igañi zion ta beñiz ere Eñomara itzuli zan. Etxean ere okeño ta okeño.


Gariñaren 30an. Aitortu, jauna artu ta Aita Santuaren onespena eskatu zun.

31an. Goizean azkenetan zan. Salda pixka bat eman nai izan zioten ta esan zien: ez da oñtarako garaya.

Geroxeago, eskuak eta begiak gorunz jaso ta itzez eta biotzez Jesus'i deiturik, bake bakean il zan Gariñaren azkeneko egunean, argitu bañon ordu batez lenago.



SAN IÑAZIOREN MARTXA ZARA



Iñazio
Gure Patroi aundia
Jesusen Kompañia
Fundatu
Eta dezu armatu,
Ez da ez etsairik
Jaíriko zaizunik
Iñolaz aúean
Gaurko egunean
Naiz betoí
Luzifer deabrua
Utzirik infernua.

Zure soldaduak
Dirade aingeruak
Zure gidaria
Da Jesus aundia

Garaitu degu
Zure Kompañiak
Etsayak.

Ez dauka Fedeak
Ez Kristau nereak
Ez dauka belduírik
Iñungo aldetik.

Iñazio oí dago
Beti ernai dago
Armetan jaía
Dauka Kompañia
Txizpaz armaturik
Bandera zabaldurik,
Gau ta egun guk
Guztiok pakea dezagun
Beti gau eta egun.



IÑIGO DEUNAREN ABESTI BERITUA



Iñazio
Gure *Zaitzale* aundia
Jesusen *Lagundia*
Zuk bildu
Eta indartu dezu,
Ez da ez etsairik
Jañiko zaizunik
Iñolaz aurrean
Gaurko egunean,
Ezta ere
Baletoñ deabrua
Utzirik inperua.

Zure Lagundia
Beti beldur gabe
Bere Jaun ta Jabe.
Da Jesus aundia.

Garaitu ditu
Zure Lagundiak
Etsayak.
Ez dauka Eleizak
Ez Euskal-Eriak
Ez dauka bildurik
Iñungo aldetik.

Iñazio or dago
Beti indartsuago
Dauka Lagundia
Su gafez betea
Guda guda nairik
Ikuñña zabalik
Gau ta egun, guk,
Guziok pakea dezagun
Beti gau eta egun.



Nihil obstat

Censor

Julianus Eguia S. J.

Imprimi potest

Severianus Azcona

Praep. Prov. Castell.

Imprimatur

† *Matthæus* Episcopus Victoriensis

11 Iulii 1928.

ARKI BIDEA

Itzaúrea	
Iñigo deunaren arpegi-antza	I
Etxea	II
Ate gañeko pertza ta otsoak	III
Zergatik du Loyolak ańizkoa beko aldea eta ladrilozkoa goya	IV
Iruñan zaurituta bere etxera dakarte	V
Jainkogana biurtu zala. Bide beńian	VI
Sendabeńian egindako ibilerak, Montse- rateko bidean	VII
Montseńat'en	VIII
Jantzi aldaketa	VIII
Guda-gizon beńia	IX
Manresa'n	X
Kordegabetza	XI
Manresako aitzuloan. Gogo jardunak	XII
Manresako gaxotegian	XIII
Jerusalen'erako bidez Barzelonan	XIV
Benezira.	XV
Jerusalen'en	XVI
Jerusalendik itzulpena	XVII
Barzelonako ikastetxean	XVIII
Alkalako eta Salamankako ikastetxean	XIX

Uretan sartuta	XX
Astinduko zutela	XXI
Mon-mart'en	XXII
Azpeitian	XXIII
Azpeititik Eñomara	XXIV
Jesusen Lagundia.	XXV
Borja deuna Iñigoren mendera.	XXVI
Xabiartar Pranzisko deuna Indietara bial- tzendu	XXVII
Iñigoren eriotz edeña	XXVIII
Iñigo deunaren Martxa zaña	
« « Abesti beñitua.	





IÑIGO deunak

Azpeitin egindakoak

eta

Loyolakoak

beste liburutxo batean

agertzeko asmoa degu.





Orain

irakuñ ezazute

XABIER'PRANZISKO

deunaren

Bizitz labuñ

irudiz apaindua.



Suc. de Martínez H.ºs-AZPEITIA

Sal neuri - Bi eréal